

**DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ARAUTUKO DUEN DEKRETUAREN
ZIRRIBORROA**

EUSKAL GEHIENGO SINDIKALAREN BALIOESPENA

SARRERA

Eusko Jaurlaritza Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) Dekretua prestatzen ari da, errenta berri hori orain arteko Oinarrizko Errentaren ordezkia izango da.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legeak DSBEri buruz esaten zuenetik DSBE hori bera arautzen duen dekretuak esaten duenera alde handia dago; izan ere, Legean prestazio unibertsal eta eskubide subjektibokotzat jotzen zen bitartean, dekretuaren zirriborroan nabarmen murriztu da haren estaldura.

Aurreko gobernua ere baliatzen zen trikimailu horretaz eskubideak dekretu bidez murrizteko. Lege bidez egin nahi izango balu, gehiengoa beharko luke Legebiltzarrean onetsi ahal izateko.

Prentsaurreko honen helburua Eusko Jaurlaritzak DSBE berri horren bidez egin asmo dituen murrizketak salatzea da, eta neurri horiek berriro aztertzeke eskatzea.

DSBE BERRIAREN MURRIZKETA NAGUSIAK

Eusko Jaurlaritzak DSBE berriaren bidez egin nahi dituen murrizketak hurrengo hauek dira:

1.- Etxebizitza bakoitzeko jaso ahal izango diren DSBEak 2ra murrizten ditu.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen Dekretuaren bidez egin nahi den murrizketa nagusietako bat etxebizitza bakoitzeko jaso daitezkeen DSBEen gehienezko kopurua da. Aurrerantzean 2 izango dira gehienez, kontuan hartu gabe etxebizitzan zenbat bizikidetza-unitate dagoen, edo unitate bakoitzean zenbat kide dagoen. Gaur egun,

oinarrizko errenta jasotzeko gehienezko bizikidetza-kopurua etxebizitzako logelen kopuruaren arabera ebazten da.

Ilido horretan, 3 bizikidetza-unitate edo gehiago dituzten eta orain oinarrizko errenta kobratzen duten etxebizitzetan, 2 DSBE baino ez dira jasoko, eta, zehazki, prestazioa lehenengo eskatu zituzten bi bizikidetza-unitateentzat izango dira.

Dekretu honek, agidanez, ez du kontuan hartzen oinarrizko errenta jasotzen duten eta etxebizitza berean elkartzen diren pertsonen diru-premiak beharturik jotzen dutela horrela, euren aukeratu dutelako barik. Hortaz, dekretuak zuzen jotzen du premia larriena dutenen aurka.

2.- Enplegurako pizgarrien iraupena murrizten da.

Lan Sarrerak Osatzeko Errentari dagokionez, **enplegurako pizgarrien iraupena murrizten da**: aurrerantzean, 24 hilekoa izango da, gehien jota, eta beste 12 hilabetez luzatu ahal izango da, LANBIDEk berariazko irizpena emanaz gero.

Horrek esan nahi du Diru Sarrerak Osatzeko Errenta jasotzen duten pertsonen kolokako lan-egoerak hobera ez egin arren, Lan Sarrerak Osatzeko Errentaz eskuratzen dituzten diru-sarreraren guztizkoa, 2 urteren buruan, edo 3 urterenean, salbuespen gisa, txikiagoa izango dela.

3.- Ondarea zenbatzeko moduak murriztu egiten du eskubidea.

Nahiz eta “etxebizitza osoa norberarena ez izan, edo norberaren jabetzako etxebizitzaren gozamena –ezarritako usufruktu-egoerengatik edo horien antzekoengatik– **mugaturik egon**, eta, hortaz, baliatzeko ondasun zaila izan, etxebizitza hori katastroko balioaren arabera ondare gisa zenbatetsiko da, edo dagokion zatiaren proportzioan.

Alegia, norberak gozatu ezin dezakeen etxebizitzaren zati baten jabea izanez gero, eta horren balioa DSBEaren urteko zenbatekoa (7.802 eurokoa, lagun bakarreko bizikidetza-unitateen kasuan) halako lau baldin bada, ez da DSBEa jasotzeko eskubiderik egongo.

Baldintza horrek pertsona asko uzten ditu prestazioa kobratzeko aukeratik kanpo; esaterako, banandu ondoren bikotekide ohia bizi deneko etxebizitzaren zati baten titular diren

pertsonak, edo herentzia zati bat -ñimiñoa izaki ere, eta gozatzerik ez izan arren- jasotzen duten jaraunsleak, besteak beste.

Gainera, **“ohiko etxebizitzaren aparteko balioak”**, hots, etxebizitzaren, garajearen eta trastelekuaren balio katastrala DSBEa halako 4 baino handiagoa izateak, ere eragingo du DSBEa ezin jasotzea.

Bestalde, baliabide nahikoak direla-eta, ezin izango du DSBEa kobratu, **“baliabide ekonomiko nahikoak izatearen zantzuak agertzen dituenak”**; une bakoitzean egin daitekeen interpretazioaren menpe uzten den irizpide subjektiboa oso.

4.- Murrizketa eta oztopo gehiago DSBEen.

DSBEa eskuratzeko administrazio-traba gehiago ezartzen dira; izan ere, lege berriarekin, prestazioaren iraupena 2 urtekoa izango baita, nahiz eta bi urterik behin berriztatu ahal izango diren.

Horrez gain, **izugarri areagotzen da** DSBEaren kobrantzari ezarritako **ikuskapenen kopurua**.

DSBEari BURUZKO GOGOETA OROKORRAK

DSBEaren zenbatekoak ez dira aldatu, gaur egungo Oinarrizko Errentari buruz, eta, beraz, oraindik ere, urriegiak dira (lagun bakarreko bizikidetza-unitateen kasuan Lanbidearteko Gutxienezko Soldataren %88; bi lagunuen kasuan %113, eta hiru edo gehiagoren kasuan %125). DSBErako eskubidea izateko gutxienezko adina ere berdin utzi dute, 23 urteetan.

Ekonomiaren hazkunde-urteetan, pobrezia ez da gutxitu; eta beheraldi honetan, orain arte baino larriagoa izango da, langabezia asko igo baita. Horrexegatik, guztiz gaitzesgarria da Eusko Jaurlaritzak prestatutako legeriak baliabide gutxien duen jendearentzako prestazioak gehiago murriztea eta mugatzea, premiazkoen suertatzen diren unean, gainera.

Horregatik denagatik, **arbuia egiten dugu diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen dekretua, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu murrizketa-proposamenak erretiratzeko, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren estaldura zabaltzearen legea aldatzeko.**

Azkenik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak DSBeari buruz eman duen irizpena salatzen dugu. Izan ere, CCOO eta UGTren botoei esker onetsitako irizpen horrek Confebask-en iritzirik kontserbadoreenak eta atzerakoienak jaso ditu bere baitan:

- DSBEn maila soldaten gutxienezko kopuruetatik hurbilegi dagoela iritzita, gutxiagotu behar dela uste dute. Guretzat, ordea, DSBEn saria txikiegia da (pobrezia-mugaren azpitik). Soldata-mailak oso apalak direla ohartuz gero, egin behar dena soldata horiek duintzea da, eta ez DSBE jaistea.
- Eusko Jaurlaritzak dekretu horren bidez ezarri nahi dituen murrizketa larriak direla-eta, irizpenak ez du aurkako iritzirik eman.